



---

## PRENTSA OHARRA

---

Gaurkoa aldarrikapen eta mobilizazio egun garrantzitsua da langileontzat, Urola Kostako herrietan ere ehunka langile kalera atera gara. Gora langileon borroka! Gora borroka feminista!

Era berean besarkada gorri iraultzailea gure artean egon ezin baina beti gurekin ditugun euskal preso eta deportatu politikoentzat. Euskal presoak, etxera! Euskal presoak, kalera!

Luze doa pandemia, sindemikoa bilakatu da egoera langileontzat, osasun krisia ez ezik, krisi ekonomiko eta soziala ere ekarri du. Aldaketak ekidin ezinak eta ezinbestekoak dira, aldaketen norabidea da borrokatzen ari garena. Orain urtebete, kapitalaren neurrirako konfinamendu betean, kolaboraziorako deia egin ziguten eta guk aldaketak borrokatzeko hautua egin genuen. Greba Orokorra atzean utzi berritan, udaberri gorria pandemiak guztiz baldintzatu bazuen ere, azkar ikusi genuen mobilizazio aldi berri baten beharra.

Patronalak oso ondo irakurri du LABen hautua zein den. LABen kontrabotere sindikalgintza eta bereziki sindikalgintza feminista zigortzeko atxilotetak izan dira lruñeakoak. Gure borroka kriminalizatzeko saiakeran urrats berri bat izan da, mezu argia bidali digute, baina gaur ere gure erantzuna argia da: ez gaituzue gure bidetik aterako. Borroka sindikal eta sozialagatik (izan enplegua defendatzeagatik edo ostalaritzaren egoera larria salatzeagatik, ...) errepresioa eta poliziaren jarrera oldarkorra pairatzen ari diren guztientzat gure txalorik beroenak. Ez gaituzte geldituko!

Kapitalismoak krisi bakoitza bere burua berrantolatu eta indartzeko baliatzen du. Oraingoa ez da salbuespena. Europako Funtsek markatu dute joko zelaia, kapital transnazionalen neurrira eginiko errekupeazio ekonomikoa. Diru publikoa enpresa pribatuetara doa inolako kontrol politiko eta ekonomikorik gabe. Sakoneko zerga erreformarik gabe eta lan harremanetan eta pentsioetan murrizketak egiteko baldintzekin.

Aurreko krisian bankuak erreskatatu ziren eta austeritate politikak inposatu, baina azken hauek langileontzat bakarrik. Oraingoa, kapitalaren beharrak diru publikoz finantzatzeko apustua egiten da. Ez dago enplegu duinaren aldeko apusturik, ez dago zerbitzu publikoak indartzeko asmorik. Zaintza krisiak eta krisi ekologikoak irtenbiderik gabe jarraitzen dute.

Kapitalismoan langileak ez gara demokrazian bizi. Sistema hau betikotzeko, patronalak esku eskura ditu estatuaren botere guztiak, legegilea, judiziala eta poliziala. Horrela ageri da, harroputz eta erasokor, babestua eta zigorgabe.

Prekarietatea hedatzeko bere neurrira eginiko legeak ere ez ditu betetzen askotan. Aurten dagoeneko 18 langile hil dira, hil egin dizkigute; Joaquin Beltranek Zaldibarko zabortegean desagertuta jarraitzen du. Prebentzio neurriak ez betetzea indarkeria patronala erabiltzea da. Eta sistema hau betikotu nahi dutenen aldetik zer? Esku batean inpunitate osoa patronalarentzat, baina bestean porra eta mehatxuak protesta sindikal eta sozialak isilarazteko.

Aurtengo maiatzaren 1eko LABen leloan norabide aldaketa aldarrikatzen dugu. Langileon eta gure lurraren aukera bakarra aldaketa da, ez sozialki ez ekologikoki, eredu hau ez delako sostengatzen. Kapitala ala bizitza hautatu egin behar delako.

Guk bizitzaren alde egiten dugu. Aldaketa ez da egun batetik bestera gertatuko. Eredu zaharretik – eredu berrira trantsizioa egin behar da. Trantsizio ekosozialista eta feminista, hori da alternatiba eta LABek baditu proposamenak eraldaketa horretarako, badugu Programa Sozioekonomikoa: bertan jasotzen dugun bezala, Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren aldeko apustu irmoa egiten dugu, Euskal Herriko Lan Kodea eta Gizarte Segurantzako lege propioa bat borrokatzeko determinazioa dugu.



UROLA KOSTAko LAB  
kostaurola@lab.eus



## PRENTSA OHARRA

---

Euskal Herrian, trantsizioa borrokatzen ari gara, lantokietan eta kalean:

- Zerbitzu publikoak indartzeko, hezkuntza eta osasungintzako langileak eta herritarrak mobilizatu gara. Osasun sistema publikoa kolapsoaren atarian dago eta gure jendea itota, hustuta, agortuta. Ebakuntzak atzeratzea ez da konponbidea. Inbertsioak handitu ezean, jai dugu. Langile gehiago behar da, enplegua egonkortu, lan baldintza eta zerbitzu publiko hobek behar ditugu. Arazo kolektiboek erantzun kolektiboak eskatzen dituzte.

- Enplegua defendatzeko eta duintzeko borroka ugariak dira. Enpleguaren defentsan, lantokiz lantoki eta eskualdez eskualde harresi soziala sortzen ari gara.

Lan erreformak eskutan patronalarentzat oso erraza da enplegua suntsitzea. Orduan, nori dagokio enplegua eta gutxieneko prestazioa bermatzea? Gobernuei. Eta zer egiten dute? Ezer ez. Patronalari aurpegia zuritu eta enplegua defendatzen ari direnen aurka polizia bidali, hori besterik ez.

Baina enpresa askotako langileek mezu argia bidali diote patronalari, ez duzue lortuko! Borroka bide luzea du, ez da bukatzen EREaren negoziazio epearekin ezta bide judiziala irekitzean ere. Eta borroka luze horien barruan, aipamen berezia sektore feminizatueta emakume guztiei, egoera ikustarazi eta borrokan ari diren guzti horiei, garbiketan, jantokietan, elikaduran, gizarte zerbitzuetan, ... ari diren guzti horiei. Esentzialak, ezinbestekoak izanik, bada garaia lanaren balioa aitortu eta soldatak eta lan baldintzak duintzeko.

Gazteei ere gure mezua. Lan eta bizi baldintza duinak lortzeko Antolakuntza eta borroka dira bidea. Etorkizun iluna marraztu dute, eta prekarietate gordinean bizitzera kondenatu nahi dituzte. Hori aldatzeko, bidelagun gara eta jarrai dezagun eskuz esku, prekarietatea garaitu eta eskubideen jabe egiteko borrokan.

- Mugimendu feministari esker zaintza lanek duten garrantzia agerian geratu da. Ereduaz gogoeta eta eztabaida irekita dago. Zaintza lan guztiak aitortu eta berrantolatu egin behar dira, zaintza lanetan ari diren emakumeen soldata eta lan baldintzak duindu egin behar dira eta zaintza sistema publiko komunitarioa eratu behar da.

- Pentsionistak: hiru urte luze, astero astero kalean mobilizatu ari dira, borroka eredugarria ez bairik gabe. Baina pensionistei ez ezik, langile guztioi dagokigu pensio duinen aldeko banderari heltzea. Ez dugu behar pensio adina gehiago luzatzea, aurreratzea baizik, ez pensio sistema publikoa pensio plan pribatuekin osagarritzea ere, sistema publikoa indartzea baizik. Soldata duinak behar ditugu, etorkizunean pensio duinak izateko eta bada ordua 1080€ko gutxieneko pensioa ezarri eta pensio arrakalarekin amaitzeko. Emakumeek sistemarentzat dohainik egindako lanek konpentsazioa behar dute. Mobilizatzeko arrazoiak sobera ditugu eta horregatik Maiatzaren 29an kalera aterako gara elkarrekin.

Eta hemendik aurrera zer? Aldaketaren bidean borroka sindikal eta sozialak hauspotzen jarraituko dugu, su berriak sortzen. Horretarako, langile borrokan mugarri berriak jarriko ditugu, greba eta mobilizazio berriekin. Eta borroka batzuen eta besteen arteko konfluentziak bilatuz, greba eta mobilizazio berriak egin beharko ditugu. Hori dena ikusirik, momentuak zer eskatzen du? Momentuak beste Greba Orokor bat eskatzen du eta LAB prest dago Greba Orokorraz hitz egiten hasteko.

Aldaketa ezker soberanismoaren eta langileen lidergotik bultzatuko da edo ez da izango. LABen proposamenean egin behar den eztabaida soziala elikatzea dute helburu. Eredu aldaketaren alde gaudenon eta trantsizioa nahi dugunon artean sinergiak bilatuz, indarrak bilduz, borroka artikulatuz. Maila politiko instituzionalean, lantokietan eta kalean.

Kapitalismoari alternatiba eraikitzea mundu mailako erronka da. Baina, argi dago alternatiba hori herri gisa abiatu behar dugula. Herri burujabetza prozesuak bultzatuz.



## PRENTSA OHARRA

---

Hasierarako ideia bueltatuz, osasun krisia gainditu ezinean, krisi ekonomiko, sozial, ekologiko, zaintza krisi larri baten erdian gaude. Aldaketak beharrezkoak dira baina aldaketarik ez dago borrokarik gabe.

Euskal Herriak, erakutsi du, herri borrokalaria dela, baita borrokak merezi duela ere. LABetik jarraituko dugu borroka sindikal eta borroka sozialak pizten, enplegua, zerbitzu publikoak, zaintza sistema publiko komunitarioa eta pentsioen defentsan. Ez gaude kikiltzeko, ez gaude amore emateko, borrokarako indarra dugu.

**GORA LANGILEON BORROKA!**